

 www.muskiz.org

 /MuskizUdala

 @muskiz

 @muskizudala

 Muskiz Udala-Ayuntamiento

MUSKIZ ALDIZKARIA

/ 33. aldizkaria
2020ko apirila

BI-1640-2017 LG zk.



*Boluntario
sarea Muskizen,
COVID-19
dela-eta*

/2. orria

*Udala,
muskiztar
helduenei
telefonoz deika*

/3. orria

*Itsaslurreko
babes lanak
amaitu dira*

/4. orria

*2020ko
aurrekontuetarako
herritarren
proposamenak*

/5. orria

*Muskizek
bertako
mendiak
zaintzen ditu*

/6. orria

Editoriala

Geratu etxean

Emozio eta ziurgabetasun handiko egunak bizitzen ari gara; guztion indarrak bateratu behar ditugu, ohiko errutinara itzuli ahal izateko. Orrialdeak uzten ditanaren barruan, eta lerro gutxi batzuetan, ahaleginduko naiz kontaktuz zer ari garen egiten, egun konplikatu hauetan, gauzak errazago bihurtzeko.

“*Muskizen ezaugarria beti izan da elkartasunezko herria izatea*”

Udaletik hainbat ebazpen eman ditugu, guztiak ere zerbitzurik oinarritzkoenak indartzera bideratuak. Ildo horretatik, baliabide eta udal zerbitzu guztiak bateratu ditugu, herritarrek babesteko, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren laguntzarekin. Kale eta eraikinetako garbiketa areagotu dugu; Etxez Etxeko Laguntza indartu dugu, beharren arabera, eta gizarte-zerbitzuen eta adinekoen arteko komunikazioa egunerokoa da. Gainera, elkartasun sare bat dugu, Muskizko Babes Zibilaren bitartez; horri esker, kolektibo zaugarrienetako kideei elikagaiak eta sendagaiak eramaten zaizkie etxera.

Bestalde, gogoan izan nahi ditut beren hondar alea jarriz adinekoei laguntzen kolaboratu nahi izan duten guztiei; hain zuzen, adineko horiek gogor egin dute borroka gu guztion alde. Eskerrik asko. Ezin dut ahaztu, orobat, hainbat pertsonak, enpresak, ikastetxek eta dendak laguntza eskaini dutela, bai eta gure osasun langileentzat eskularru eta maskarak eman dituztela edo aurpegiak babestekoak sortu dituztela ere.

Hala ere, batez ere, ez zaitut ahaztu nahi, herritar hori, ahalegin handia egiten baitzabiltza, hala etxean egonda nola gainerakoak etxean egon daitezten ateratzen bazara. Muskizen ezaugarria beti izan da elkartasunezko herria izatea, eta, osasun alarmako egoera honetan ere, halaxe da. Hemendik ere aterako gara, guztiok elkarrekin.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Muskiz Lagunkoiak bigarren fasea abiaraziko du, Ekintza Plana osatuz

Muskizko Udaleko arduradunek, zehazki, gizarte-ekintzako sailak eta talde eragileak, azken diagnosa aurkeztu dute herriko Kultur Etxeko M aretoan. Bertan, topaketa guztietako eta udalerrriaren lagunkoitasant mailaren galdetegi bidez jasotako informazioa jaso zen. Diagnosi horren ondoren, bigarren fase honetan, Ekintza Plana osatuko da.

Hau da, puntu honetatik aurrera, aztertu egingo da sail guztietan proposatu diren gauzak; hain zuzen, zortzi izan dira guztira: aire zabaleko espazioak eta eraikinak, garraio publikoa, etxebizitza, parte-hartzea eta ehun soziala, herritarren parte-hartzea eta enplegua, errespetua eta gizarte-inklusioa, komunikazioa eta informazioa, gizarte-zerbitzuak eta osasuna. Azterketa horretan, lehenik, ikusiko da ea zer ekintza diren

Udalaren eskumenekoak; gero, Muskiz herri lagunkoiago bihurtzeko lehentasun handienekoak zein diren landuko da.

Diagnosi horren ondoren, ondorio asko aterako dira arlo desberdinetan, esate baterako, hauek: periferiako auzoekin komunikazioa hobetzea, parkeetan hobekuntzak egitea, Kultura Saitetik proposatutako jarduerak hobetzea, argiteria eta bide seinaleak hobetzea, etxebizitza irisgarriren plana garatzea adinekoentzat eta boluntariotza sustatzea. Halaber, hauek ere azaldu dira: belaunaldien arteko martxak, heziketa zibikoko kanpainak, eguneko zentroko jardunaldi irekiak dauden zerbitzu guztiak ezagutzeko eta aurreiritziak apurtzeko, elkartearen gida bat eskaintzea edota udal instalazioetarako sarbideak hobetzea.



Boluntario sarea Muskizen, COVID-19 dela-eta

Muskizko Udaletik boluntario sare bat sortu da udalerriko adinekoei laguntzeko; hala, adinekoentzako elikagaiak eta sendagaiak erosteko zerbitzua abiarazi dute. Interesdunek eta lagundu nahi duten boluntarioek telefono honetara deitu dezakete (688690576) edo helbide elektroniko honetara idatzi: babeszibila@muskiz.com. DEITU ETA LAGUNDUKO DIZUGU!



Udala, muskiztar helduenei telefonoz deika

Muskizko udalerrian, 80 urtetik gorako 500 pertsona baino gehiago bizi dira. Horregatik, koronabirusa dela-eta dagoen osasun alarmako egoeraren aurrean, Udala kolektibo zaugarrieneko kideei telefonoz deika ari da, baita mugikortasuna murriztuta dutenei edo osasun arazoak dituztenei ere, zelan dauden eta zer behar dituzten hurbiletik jakiteko, hala, herrian sortu den elkartasun sarearen bidez laguntza emango baitzaie. Nabarmentzekoa da Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saila nolako lana egiten ari den, Babes Zibilarekin, Udaltzaingoarekin eta helduentzako udal zentroko langileekin batera.

Halaber, adierazi behar da hala udaleko gizarte zerbitzuak nola helduentzako udal zentroko langileak adinekoenekin eta zerbitzu horren erabiltzaileekin harremanetan jartzen ari direla, hurbiletik jakin dezaten bai beraiek bai beraien senideak nola dau-

den eta zer behar dituzten. Gainera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak erabiltzaile guztiei ematen die zerbitzua, behar den babesarekin; beste erabiltzaile bat gehiago du zerbitzuak orain. Halaber, psikologo zerbitzua jarri da erabilgarri, eta zaugarri gisa identifikatuta dauden erabiltzaileekin egunero jartzen da harremanetan.

Aitortza publikoa

Egoera honen aurrean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak nahiz gainerako udal zerbitzuak buru-belarri ari dira lanean hasiera-hasieratik. Osakidetzak gaixotasunetik babesten gaituen hein berean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak muskiztar zaugarrienei arreta emateko ari dira lanean. Gorespen eta aitortza hau gainerako udal zerbitzuetako langileei ere egin behar zaie: garbiketa zerbitzua, gizarte babesa eta herri segurtasuna; izan ere, lan ikusezina baina Muskizko herritar guztien ongizatearen aldekoa egiten dute.



Muskiz bat eginda, koronabirusaren aurrean

Elkartek, kirol taldeek, udal zerbitzuek, Babes Zibilak, merkatariek, musika taldeek... azken finean, Muskizko herritarrek gizartea kontzientziatu nahi izan dute koronabirusa dela-eta bizi dugun alarma egoeraren aurrean, argi utziz daukagun aukerarik onena eta bakarra "etxean gelditzea" dela.

Horretarako, bideo bat grabatu dute, zeinean adin desberdinetako hainbat muskiztarrek parte hartzen duten. Muskiztar horiek, etxetik lanean aritzeaz gainera, lanean ari dira guztiak etxean gelditu daitezten. Mezu horren bidez, kontzientzia piztu nahi dute; orain, garrantzitsuena bat eginda egotea eta ezarritako neurriak betetzea da.

Ni etxean geratuko naiz! Ni aterako naiz, zu etxean geratzeko!

[#EtxeanGeratukoNaiz](#)

M MUSKIZ KULTURA AGENDA

Muskizko Udalak hartutako neurrien ondoren, eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren gomendioei jarraikiz, jakinarazten dizuegu **MEATZARI ARETOA PUBLIKOARI IXTEKO DEKRETUA** onetsi dela. Krisi hau igaro ondoren, aurreikusitako emanaldiak programatuko ditugu berriz; bien bitartean, eskerrik asko ulertzeagatik eta laguntzeagatik.





Hobetze-lanak, El Malecónen

Udalerriko kirol instalazioetan hobekuntzak egiten jarraitzen du Muskizko Udalak. Horietako bat da El Malecón futbol zelaia. Azken urteetan egindako hobekuntzez gainera, esate baterako, ureztatzea, estalkia, eta irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea, orain beste bi inbertsio egingo dira, 9.000 eurotik gorakoak: markagailu digitala eta babes-sare berria jartzea.

Instalazioak modernizatzeko asmoarekin, Udalak markagailu digital berri bat jarri du; azken urteetan bazkideek eta zaletuek egin duten eskaria izan da. Gainera, sare berriak jarriko dira ateen atzealdeetan, segurtasuna areagotzeko eta baloiak ez ateratzeko kirol instalaziotik kanpora.

Udal kiroldegiko sarbidea hobetzea

Muskizko Udalak, udal instalazioetako sarbidea hobetzeko xedez, aldapa bat eraiki du udal kiroldegiko aparkalekuen eremuan eta instalazioen sarreran, mugikortasuna murriztuta duten pertsonentzako sarbidea hobetzeko. Hauek dira egin diren lanak, zehazki: aparkalekuen ondoan zegoen berdegune bat kendu da, eta horren ordez hormigoizko sarbide berri bat jarri da, eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkalekuak lekuz mugitu, eta aldapa berrien ondoan jarri.



Ikastolako patioak mugatzen dituzten hormak indartu ditu

Muskizko Udalak, eskola eraikinetako azpiegiturak eta mantentzea hobetzeko asmoz, guztira 41.506,55 euro inbertitu ditu Ikastolako patioak mugatzen dituen horma bat konpontzeko.

Hormigoizko bloke horren egoera nabarmen kaltetuta zegoen, hormaren hormigoizko armatua gutxituta zegoelako eta hau-

rren erasanak zituelako, hesiari heldu eta horren gainean indar egiten baitute.

Horregatik, Udala egungo gutxi landutako hormigoizko blokeko hormaren ordez hormigoizko armatuzko bat jartzeko lanean ari da, zeinean egungo hesien oinarriak txertatuko diren eta ainguratze berriak jarriko diren, behar izanez gero.



Itsaslurreko babes lanak amaitu dira

Urte eta erdiren ondoren, Itsaslur pasealekua dagoeneko irekita dago, hura hobetzeko lanak amaitu eta gero. Ezpondak partzialki berritu dira, kontrahormak eraiki dira, sare metalikoak berriz jarri dira, zorua berritu da bideko hainbat gunetan... Halaber, iturri bat ere jarri dira.



Herritarren aurrekontuetarako proposamenak

Udalak, 12.278.700 euroko aurrekontuarekin, erantzun egin nahi die muskiztarrek 2020ko aurrekontuetarako parte-hartze prozesuan adierazi dituzten beharrei. Prozesu hori irailaren 25etik urriaren 9ra arte egin zen iaz, eta 162 proposamen jaso ziren. Horietatik 32 ez dira udal eskumenekoak; 27 aurrera eramango dira parte-hartze prozesuen kargura; 46 egiten ari dira edo aurreikusita daude; 8 udaltzaingoari helaraziko zaizkio; 14 etorkizunean landuko dira, eta, azkenik, 35 ez dira aurreikusi edo ez dira egingarriak.

Liburuxkan agertzen dira zer ekintza gauzatu diren, zein dauden martxan edo egiteko aurreikusita, kolore kode batekin, era errazagoan identifikatzeko. Hona hemen abiarazita dauden edo aurrekontuetan aurreikusita daudenetako batzuk: Cantarranako patioak eraberritzea, patio

inklusiboak izateko eta eskola ordutegitik kanpo herritarrei irekitzeko; gazteen zako orientazio eta informazio zerbitzua, harreman intimoei buruz; "Zibersegurtasunari" buruzko kanpaina bat egitea; pasealeku eta parkeetan altzariak jartzea edo haurren parkeak estaltzea; kaleetako garbitasuna hobetzea; laguntza ekonomiko sozialak; bizikletak garbitzeko gune bat instalatzea...

Bestalde, aurrekontuetan sartuta daudenen artean, esate baterako, MTB bizikleta pista bat eraikitzea Mellon, parkeetan konponketak egitea, skate pista handitzea, tokiko merkataritza sustatzea, Agility txakurrentzako parkea eraikitzea, Antonio Truebako igogailuaren proiektua... Eta hauek amaitzeko: gorotzen kontrola, txakurren etxez etxeko zerbitzua edo Sobalbadun Etxadiko hondakinen kudeaketa.



Landare-hondakinak biltzeko zerbitzua errekuperatuta da

Muskizko Udalak kimatzeetako hondarrak eta landare-hondakinak biltzeko zerbitzua berreskuratu du, herritarrei mota horretako hondakinak biltzen laguntzeko. Zerbitzua martxoan hasi zen martxan, eta urte osoan emango da; astean hiru bilketaregun ezarri dira: astelehena, asteazkena eta ostirala.

Zerbitzua erabiltzeko baldintzei dagokienez, batetik, interesdunek aurrez jakinarazi beharko dute, 946706000 telefonora deituta, zer lekutan bildu behar diren, eta hondakinak leku irigarri batean utzi beharko dituzte. Halaber, azpimarratu behar da hainbat betebeharrak daudela: kimatzeetako egurrak zatituta eta lotuta egon beharko du; segatzetik sortutako landare-hondakinei dagokienez, zabor-poltsa itxietan jarri beharko dira, ahal dela biodegradagarrietan, eta etxebizitzaren kanpoaldean utzi beharko dira. Bestalde, hondakinen bolumena handia bada, jakinarazi egin beharko da abisatzeko orduan, berariazko edukiontzia bat erabiltzeko horretarako.

Emakumezkoentzako arretak aktibo jarraituko du



Muskizko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak gogorarazi nahi du, COVID-19aren ondoriozko larrialdi egoera gorabehera, aktibo daudela emakumezkoen arreta bermatzeko baliabideak, edozein dela ere egoera, eskatu ahal izan ditzaten, batez ere indarkeria matxistaren biktima diren emakumezkoen zuzendutakoak.

Hain justu, gaur egun, operatibo daude Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua, Orientazio eta Laguntza Psikologikoko Zerbitzua, eta Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Zerbitzua. Horrenbestez, Udalak gogorarazten du arreta behar duen edozein emakumezko telefono honetara deitu dezakeela, arreta jasotzeko: 946709936. Horrez gainera, premiazko beste baliabide eta arreta zerbitzu hauek ere erabilgarri daude:

- Doako arreta telefonikoa, 24 orduz (SATEVD): 900840111
- Larrialdietarako telefonoa: 112
- Muskizko Udaltzaingoa: 946707925
- Muskizko Ertzaintza: 946708036



Elkarrizketa



Muskizek bertako mendiak zaintzen ditu, basoberritzea indartuta

Muskiz beti nabarmendu da elkartasun herri bat izateagatik, are gehiago tragediak gertatzen direnean, iaz bertako mendiei eragin zien sutea bezalakoak. Mendi horietan, duela urte batzuetatik hona, udalerrria mendizaleen gogoetan jarri duen jarduera bat egiten da: Mello Saria. Marce Simonekin hitz egin dugu, El Cerro Kultur eta Kirol Elkarteke Zuzendaritza Batzordeko kidearekin, eta ikastetxeekin suteak kaltetutako eremuak basoberritzeko egin duten ekimen ederra izan dugu hizpide.

G/ Nola sortu zen elkartasun ekintza hau?

E/ El Cerro Kultur eta Kirol Elkartearen Zuzendaritza Batzordeko kide batek zera proposatu zuen: Muskizko mendietako sute larriak zirela-eta, eta horietako batzuk MELLO SARIko ibilbidean sartzen zirenez, VIII. EDIZIOko ELKARTASUNEZKO MELLO SARIA mendi horien basoberritzeari ematea. Lehen unetik babestu zuen batzordeak ekimen hori, eta lanean hasi zen.

G/ Nola erantzun dute ikastetxeek? Zeintzuek hartu dute parte eta nolakoa

ari da izaten?

E/ El Cerroko Zuzendaritza Batzordeak egin zuen planteamenduan, ezarri genuen, ingurumenaren alorreko hezkuntza lane-rako, suteen ondorioetarako eta halakoei aurre egiteko, udalerriko gazteen inplikazioa beharrezkoa zela, eta horregatik erabaki zen Muskizko ikastetxeei proiektu hau proposatzea. Ikastetxe guztiak egon dira proiektuan, eta ikasleak, basoberritze egunetan; 600 ikaslek baino gehiagok landatu dituzte zuhaitzak: urkiak, haritzak, arteak, pagoak, elorri zuriak... guztiak bertako espezieak. Azpimarratu behar da ikastetxeetako zuzendaritzek, irakasleek eta ikasleek dena eman dutela proiektu honetan; gainera, etorkizunearn proiektuarekin jarraitzea gustatuko litzaiguke. Eta eskerrak eman nahi dizkiegu, inplikazioagatik.

G/ Zenbat hektarea basoberrituko dira?

E/ Basoberrituko azalera 5.500 metro koadro ingurukoa da, Las Pozas eremuan; 625 zuhaitz landatu dira.

G/ Ekimen honen bidez, gazteenak kon-

tzientziatu daitezke, ingurumenak eta eremu autoktonoek duten garrantziari buruz... Zer ekimen egin dituzue haiek kontzientziatzeko?

E/ Haurrak landatze eremura iritsitakoan, sutearen ondoren mendiei egindako argazkiak erakutsi zitzaizkien, nola gelditu ziren ikusteko. Jarraian, Aldundiko arduradunak hitzaldi bat eman zien, ingurumenean suteek zer eragin duten azaltzeko; halaber, hitz egin zien zer jarrera izan behar duen bakoitzak zentzu horretan, eta zer landatze egingo zuten, zer zuhaitz landatuko zituzten eta zelan landatzen ziren.

El Cerro elkartetik, eskerrak eman nahi dizkiogu Petronorri, egin duen ekarpen ekonomikoagatik, laguntza ordainezina baita, eta La Caixa Fundazioari ere bai, egin duen ekarpenagatik. Halaber, eskerrik eman nahi dizkiogu Foru Aldundiari, kolaborazio ordainezinagatik, eta eskerrik asko gure eremua zaintzen egon den Josean Cáceresi, eta Muskizko Udaleko Ingurumeneko zinegotzigoari, izan duten kolaborazioagatik.



Esne Beltzaren emanaldia, jaietan

Bigarren urtez jarraian, Muskizko Udalak nahi izan du udalerriko herritarrek aukeratzea 2020ko San Joan jaietako kontzerturako taldea, parte-hartze prozesu baten bidez. Abenduan eta urtarrilean, herritarren bozketa prozesua izan zen, eta bozketaren azken emaitza hau izan da: Esne Beltza izango da herriko jaietako kontzertuan (ekainaren 27an, larunbata) arituko den taldea, 266 bozka baliodun eta 3.990 puntu jaso ondoren.

Euskal taldeak libre dagoela adierazi du dagoeneko. Gainerako taldeengandik bereizten duen estiloa du; kolore mordoak nahastu dituzte koktelaren: hip hopa, reggaea, soula, rocka, folka edota cumbia; kide bakoitzak bizi izandako esperientzia pertsonaletatik abiatuta landu den musika da, eta, horrenbestez, kide guztiak ordezkatzeko dituzte.